

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiak

2. Ezingo dute Lege honetan araututako dirulaguntzen onuradun ez eta erakunde laguntzaile ere izan, ondoko egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak, baldin eta dirulaguntzaren izaeragatik dirulaguntzaren beraren araudian salbuespen bat dela adierazten ez bada.

- a. Epai finko baten bitartez dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eskubiderik gabe gelditzea.
- b. Konkurtsoa deklaratzeko eskatuta izatea, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturik egotea, konkurtsoa deklaraturik izatea, auzipetuta egotea edo Konkurtsoen Legearen arabera ezgaituta egotea konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitasun epea bukatuta egon gabe.
- c. Administrazioarekin izenpetutako edozein kontratu behin betiko suntsituta edukitzea, edozein arrazoi medio errudun deklaraturik egotearen.
- d. Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak maiatzaren 11ko 12/1995 Legeak (Nazioaren Gobernu Kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Karguen bateraezintasunei buruzkoa) eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak (Administrazio Publikoaren zerbitzura lanean ari diren Langileen Bateraezintasunei buruzkoa) araututako edozein kasutan egotea, edo ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak (Hauteskunde Erregimen Orokorra) araututako hauteskunde karguetako edozein izatea, bertan edo autonomia erkidegoan arlo horiek arautzen dituzten arauetan ezarritako moduan.
- e. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioetan eta gizarte segurantzakoetan egunean ez egotea, arauetan ezarritako moduan.
- f. Araudiaren arabera paradisu fiskaltzat jotako herri edo lurralde batean izatea bere egoitza fiskala.
- g. Dirulaguntzak itzultzeko obligazioetan egunean ez egotea, arauetan ezarritako moduan.
- h. Epai finko baten bitartez dirulaguntzak eskuratzeko eskubiderik gabe gelditzea lege honen edo Zergei Buruzko Lege Orokorren arabera.

Ezingo dute onuradun izan Lege honetako 11. artikuluan, 3. idazatian, bigarren paragrafoan aurreikusitako taldeek, bere kideetako edozein aurreko debeku-egoeretako batean badago.

3. Edozelan ere, ezingo dute Lege honetan araututako dirulaguntzen onuradun ez eta erakunde laguntzaile ere izan, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak (Elkartzeko Eskubidea arautzen duena) 4. artikuluko 5. eta 6. idazatietan aurreikusitako debeku-egoeretan dauden elkartek.

Eta 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan ezarritakoaren arabera legez kontra ari den susmoa izan eta izena emateko hasitako prozedura administratiboa etenda duten elkartek ere ezin izango dute onuradun ez eta erakunde laguntzaile ere izan, dagokion erregistroan inskribatzerik dagoela dioen ebazpen judizial irmoa eman arte.